

9. Buletina

2013ko APIRILA

LAN OSASUN ALORREKO BULETINA

AURKIBIDEA:

- 1. AUZITEGIAK ELARI ETA LABI AITORTZEN DIE OSALANGO INFORMAZIOA JASOTZEKO ESKUBIDEA.**
- 2. OSASUN SISTEMA PUBLIKOAREN KONTRAKO BESTE URRATS LARRI BAT.**
- 3. ELA ETA ETUI: LAN OSASUN ETA SEGURTASUNA, AUSTRITATE ETA ESTRATEGIA SINDIKALAK.**
- 4. LAN-ISTRIPUEN TAULA HEGO EUSKAL HERRIAN, 2012KO ABENDUA**

9. Buletina

2013ko apirila

1. AUZITEGIAK ELARI ETA LABI AITORTZEN DIE OSALANGO INFORMAZIOA JASOTZEKO ESKUBIDEA

Bilboko 5. administrazioarekiko auzietarako epaitegiak, 2012ko abenduaren 29an eman duen epaian, ELAri eta LABi Osalandik beren ekintza sindikala egiteko beharrezkoa den informazioa jasotzeko eskubidea aitortu die, erakunde honetako Kontseilu Nagusian partaidetza etenda badute ere.

ELAk eta LABek erabaki zuten 2010eko uztailaren 5etik aurrera Osalango Kontseilu Nagusiko parte hartzea etetea, ondorio guztietarako eta epe jakinik gabe, “partaidetza horrek balioaren bat duela bermatzen ez den artean; batetik, edukiei dagokienez, eta bestetik, euskal gehiengo sindikalaren iritzia aintzat hartzeari dagokionez, lan-segurtasun eta -osasun gaitako politika publikoak erabakitzerakoan”. Gogora dezakegu erabakia hartzeko arrazoiaren artean Osalan lan-osasun eta -segurtasuneko estatu-eredura makurtu izana zegoela, horrela eredu propio bat baztertuz, eta Eusko Jaurlaritzak gai honetan elkarrizketa sozialeko mahaiaren alde egin izana, Osalan bera edukirik gabe uzten zuelarik.

ELAk uste du bere parte hartzea eteteak ez duela inondik ere esan nahi uko egiten zaienik Osalango Kontseilu Nagusian dagozkien bokalei. Gainera, bi sindikatuek hasieratik aldarrikatu zuten erakunde honetatik informazioa jasotzeko eskubidea zor zitzaiela, lan-osasunarekin zerikusia zuen ekintza sindikala egin ahal izateko. Horrenbestez, Osalango zuzendaritzari behin eta berriz eskatu zioten, hitzez zein idatziz, informazio hori (plan estrategikoa, jardueren memoria, plan de gestión, convocatorias y actas...).

Eusko Jaurlaritzaren agindu politikoei jarraiki, Osalango zuzendari izan den Pilar Collantesen jarrera ELAri eta LABi Osalango Kontseilu Nagusiko funtsezko informazio oro ukatzea izan zen.

Jokabide horrek askatasun sindikala larriki urratzen zuela uste zutenez, bi sindikatuok auzitara jotzea erabaki zuten ukatzen zitzaien informazioa bide judizialek eskatzeko.

Orain eman den epaiak, zeina finkoa baita errekurtsorik sartu ez delako, arrazoia ematen die ELAri eta LABi, eta ebazten du Kontseilu Nagusiko parte hartzea epe jakinik gabe eteteak ez duela esan nahi Osalango Kontseiluko kide izateari uko egiten zaionik, eta horregatik beren eginkizunak betetzeko beharrezko diren datuak eta dokumentuak eskatzeko eskubideak oso-osorik mantentzen direla. Hots, ELAk eta LABek Kontseilu Nagusiko kide izatearekin lotutako eskumen guztiak dituzte, besteak beste, lan-osasuneko jarduera sindikalerako beharrezko diren Kontseiluaren datu eta dokumentuak eskuratzeko aukera.

Beraz, ELAk Jaurlaritzari eta Osalango zuzendari berriari eskatu diote epaia bete eta urratutako eskubideak aintzat har daitezela, betiere orain arte ukatu zaien informazioa eskuratzeko bermatuz.

2. ESPAINIAR GOBERNUAK LEHENENGO URTEAN ZEHAR ALDI BATERAKO EZINTASUNAK KUDEATZEKO ETA KONTROLATZEKO ERREGE DEKRETU PROIEKTU BAT AURKEZTU DU.

OSASUN SISTEMA PUBLIKOAREN KONTRAKO BESTE URRATS LARRI BAT.

Mutualitateen kudeaketari buruzko erreforma berriaren zai gaudela, 2013ko urtarrilaren 21ean onartutako Errege Dekretu proiektuak alta- eta baja-agiri medikuen eskuratzea eta kontrola arautu nahi ditu, eta hau osasun sistema publikoaren kontrako beste eraso bortitz bat da. Helburu honekin, mutualitateetako medikuei ahalmen handiagoa ematen zaie gaixotasun edo istripu arrunten kasuan, hauen gestioa mutuen esku dagoen kasuetan, betiere.

Honetarako, ondorengo neurriak jasotzen ditu aipatutako proiektuak:

- Gaixotasun edo istripu arrunten ondorioz bajaran egon ezker, mutualitateetako medikuei langileen txosten medikuak eskuratzeko gaitasuna ematen die.
- Langile baten osasun arazoa lan-arazoa den ala ez erabakitzeko gaitasuna ematen zaie Mutualitateei.

- Mutualitateetako medikuek Osasun Publikoko medikuari alta-agiria proposatzeko aukera izango dute. Lau egunen buruan, Osakidetzako edo Osasunbideko medikuak ez badu alta-agiri hau baieztatzen, edo ez badu erantzuten, automatikoki Mutualitatearen alta-agiria ontzat emango da eta langilea lanera bueltatu beharko da, jakinarazpena egin zaion hurrengo egunean.

- Mutualitateek aldi baterako ezintasunetan lehenengo egunetik aurrera esku har dezakete (lehen prestazioa kudeatzen zuten egunetik aurrera sar zitezkeen soilik).

Proiektu honek lan burokratikoa areagotu egiten du, osasun-arretaren kaltetan, sistema publikoko medikuak mutualitateetako medikuen eskaerei adi egon beharko baitira, erantzun arin bat eman eta langileen osasuna gehiago kaltetu ez dadin. Edozein kasutan, aldi baterako ezintasun hauen kudeaketan irizpide ekonomikoa osasunari gailentzen zaio, eta sistema publikoko medikuen profesionaltasuna zalantzan jartzen da.

90. hamarkadaren erdialdetik hona gobernu desberdinek legedi berria ezarri dute osasun publikoa pribatizatu eta langileon osasun arreta enpresen eskuetan jartzeko helburuarekin. Proiektu berri hau pribatizazioaren aldeko beste mugimendu berri bat da.

Enpresek araudi honen garapena erabat babestu dute, eta gaixotasun arruntak Mutualitateek kudeatzearen onurak behin eta berriro azaldu dizkigute (froga medikuak eta diagnostikoak azkartzen omen dira...). Horretarako langileek osasun sistema publikoaren erabilera desegokia egiten dugula sinestarazi nahi izan digute.

Enpresa-Mutualitateek gure osasunaren kontura dirua aurreztu eta pribatizatze bide honetan, gertakizun baten jatorria lanean datzala zalantzan jartzeko aukerarekin ez dute nahikoa. Harago joan nahi dute eta urratsak ematen ari dira patronalaren benetako eskaera kontutan hartua izan dadin: Azken helburua gaixotasun arruntetan Mutualitateek altak ematearena da.

Honengatik guztiagatik, inoiz baino premia handiagoa dugu gai hau negoziazio kolektiboaren bidez jorratzeko eta gaixotasun eta istripu arruntetatik eratorritako bajak Mutualitateen eskuetan egoteari ezetz esateko. Ezin dugu utzi enpresek gure osasunaren inguruan erabaki eta kontrol zuzena izaterik. Zalantzarik gabe, egoera berri honetan ekintza sindikala erabili behar dugu enpresarien erabakiak baldintzatzeko, eta dagoeneko altaren kudeaketa Mutualitateen eskuetan dagoenean, erabaki hau atzera botatzeko.

3. ELA ETA ETUI: LAN OSASUN ETA SEGURTASUNA, AUSTERITATE ETA ESTRATEGIA SINDIKALAK.

Otsailaren 28 eta martxoaren 1ean lehenengo aldiz, ELAK eta Europear Konfederazioko Sindikatuen (EKS) formakuntza institutuak, ETUI-K, Villa de Bilbao Hotelan ospatu ziren jardunaldiak antolatu zituzten. Jardunaldien izenburua hurrengokoa izan zen: "Osauna eta Segurtasuna lanean, austeritate eta estrategia sindikalak".

Jardunaldi hauetan, EKSan parte hartzen duten Europear Batasuneko lurralde ezberdinetako 12 sindikatuetakoa lan osasun arduradunek partu hartu zuten. Bertan, Europear Batasuneko lurralde guztietan ezartzen ari diren murrizketa eta austeritate politikek lan osasunaren eta segurtasunaren babesean zer nolako eragina duten aztertu zen.

ETUIko lan osasun arduradunak, Viktor Kempak, jardunaldiei hasiera eman zion. Europar Batasuneko siniestralitatearen inguruan datuak aurkeztu zituen eta ETUI-k eta EKS-k, lan osasun eta segurtasun arloan dituzten estrategiak azaldu zizkigun. Jardunaldiarekin jarraituz, partaide bakoitzak, beren lurraldeetako lan osasun eta segurtasun egoera azaldu zuen. ELAk, partaide guztiei gure herriaren egoera orokorra ezagutarazteko aukera izan zuen.

Jardunaldian zehar lantalde ezberdinak egin ziren. Bertan, sindikatuok lan osasun eta segurtasunean onurak lortzeko praktika onak eta adibide positiboak azaldu genituen. Helburua, lurralde bakoitzak, lan osasuna hobetzeko erabilitako estrategiak besteoi helaraztea izan zen, guztiontzat esperientzi hauek erabilgarri izateko. Bilbon kokatua dagoen Europear Agentziara ere bisita egin genuen. Langileen osasun eta segurtasuna hobetzeko estrategiak eta politika murriztsaileen ondorioz garatutako mehatxuen kontrako lan ildoak azaldu zizkiguten .

Behin jardunaldiak bukatuta, ondorio moduan zenbait estrategia sindikal garatu ziren, lan osasun eta segurtasun arloan sufritzen ari garen erasoei aurre egiteko. Kalitate eta eskubidezko enpleguaren aldarrikapena, negoziazio kolektiboa eta ekintza sindikala eta prebentzio delegatuen lanaren sendotzea izan ziren ondorio moduan erabaki ziren ildo nagusienak , besteak beste.

Lan osasun arlotik balorazio positiboa egiten dugu jardunaldi hauen inguruan. Alde batetik, European dauden beste sindikatuei ELAko lan osasun arloa ezagutzera eman diegu eta bestaldetik, lan osasun eta segurtasun arloan daramatzagun lan ildoak indartzea lortu dugu.

4. LAN-ISTRIPUEN TAULA HEGO EUSKAL HERRIAN, 2013KO URTARRILA - APIRILA

HEH	LAN-ISTRIPUAK
BIZKAIA	5
GIPUZKOA	3
ARABA	2
NAFARROA	0
GUZTIRA	10

* Apirilaren 3ko datuak